

ARABAN ADIN TXIKIKOEN ARTEAN EGINDAKO ESTUDIO BATEN LABURBILDUMA

Eusko Jaurlaritzak 1985eko urrian adin txikikoen babes eta tutela-gaian hartutako konpetentzien arabera, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongunderako Erakundeak beharrezkotzat jo zuen estudio bat egitea Arabako Lurralde Historikoan adin txikiko marjinatuak zuten egoeraz. Beraz, estudio honen helburua, larriki, adin txikiko marjinatuak ñola aurkitzen diren jakitea da eta geografiaren arabera premiak ñola banaturik dauden ere bai, adin txikikoak zaindu gabe edo abandonaturik uzteko zer faktore dauden aztertuz, jakin zer kausa eta harreman dauden adin txikikoaren problematikaren eta berau irteten deneko familiaren artean, atzemandako premiak ebaluatu eta benetan erantzuna eman zaioneko eskaria, eta azkenik, jarduerahelburuak ezarri kontutan hartu gabe edo behar adina hartu gabe dagoen problematika soluziona dezaketen zerbitzuak eta egitaruak martxan jar ditzaten eta jarduerestrategiak proposatu familiaren babesterako prebentzio-politika bat zehazteko eta praktikatuzeko.

Azterturiko kolektiboaren definizioa

Familia problematikotzat hartu dirá gure gizartearen elkarregintzazko balio eta prozesu "normaletatik" kanpo geratzen diren eta beren marjinaltasunarengatik nabarmentzen direnak. Marjinaltasun hau familiaren beraren faktore endogenoetatik etor liteke (gurasoen gaisotasun eta minusbalia, hiltzeagatik bat edo bi gurasoak falta direlako, portaera asozial edo desbideratuengatik...) edo familiaz kanpoko faktoreengatik (desenplegua, lazeria ekonomikoa, aurreritzi etnikoak, ezegonkortasun familiarra...).

Faktore guzti hauek egoera marjinaltzailerak sortera ditzakete adin txikikoarentzat eta eragin zuzena izan lezakete beronen desmoldaeran.

Zentzu honetan, adin txikiko arazoduntzat jo dirá famili giro "normalik" ez duten haurrak, baldin eta bertatik eragin negatiboko egoera batzu sortzen badira, hala ñola: abandonua, tratu txarrak, malnutrizioa eta txukuntasunik eza.

Adin txikikoaren faktore marjinaltzailerak hartu dirá, era berean, beronen izaera-

rekin zerikusia dutenak ere: gaisotasuna, minusbalia... (problematika sozio-famüiar batekin kidedurik dauden guztietan) baita portaera, droga edo alkoholaren kontsumoarekin, jardun aurredeliktiboekin edo eskolarekin zerikusia duten guztietan ere (absentismoa, eskolarekiko arbuioa, eskolaporrota...).

Metodología

Marjinazioaren estudiorako hautaturiko metodoa haurtzaro-eremuan, bi eratako analisi elkarrosagarritan oinarritzen da: alde batetik haurtzaroarentzat edo familiarentzat zerbitzu eta/edo programak dituzten erakunde publiko eta pribatueta eskariari zemolako erantzuna ematen zaion aztertu da. Bestalde, objektiboki dauden baina dakigularik zerbitzuen erakunde-sarearekin, ez eskaltzaile eta ez hartzaile gisa harremantartu ez direnen premiak aztertu dirá. Bigarren kasu honetan, hezkuntza-sare publikoko zentruen multzoan, eskolaurre eta OHOtik hartutako laginak erabili dirá informazio-iturri gisa. Bi analisi mota hauek elkartzea baliozkotzat jotzen da gaur egun haurtzaroan dauden premien egoeraren diagnostiko bat lortzeko, izan ere ezaguera haú nahitaezkoa bait da sektore honen planifikazio sozialerako eta dauden premiak eta eskaintzen den laguntza ebaluatu ahal izateko.

Adin txikiko arazodunak

Gogoeta kuantitatibotan sartu aurretik, aipaturiko metodologiaren bitartez lorturiko datuak gaiarekiko lehen hurbilpen gisakotzat hartu behar direla zehaztu behar da lehendabizi, izan ere ez bait dago antzeko beste estudiorik kontrastatzeko eta, ahal izanez gero, emaitzat balioztatu ahal izateko.

15 urtetatik beherako adin txikiko arazodunen kolektiboa 4.109 haurrez osaturik dago, eta honek esan nahi du 0 eta 14 urte bitarteko ehun haurretatik sei egoera sozio-familiar ez-normaletan aurkitzen dela. Adin txikiko hauen % 24, hau da, 983k eratzen dute harremanetan jarri den eta zerbitzu sozialen saretik erantzuna hartzen ari den eskaria. Gainerako % 76ak, 3.126k, potentzialki zerbitzu-eskaltzaile izan litekeen populazioa osatzen du. Honek esan nahi du objektiboki premi maila desberdinetakotzat jo daitezkeen egoeratan aurkitzen direla, baina arrazoi desberdinengatik, ez dutela jo —edo ez dagoela konstataturik jo dutela— zerbitzu sozialen sarera zainketa-

-eske. Esan beharra dago eskari potentzialeko zifra honek larritasun maila desberdinetako eskariak dauzkala bere baitan. Bertan arazorik larrienekoak (abandonua, tratutxarra, gosea) 422 haur dirá (eskari potentzialaren % 13,5) sarritan arazo hauek bateraturik aurkitzen direlarik eta egoera hauek dirá lehentasunez jardutea eskatzen dutenak. Gainerako % 86,5 (2.704 haur) hainbesteko larritasunik ez duten arazoaren pean daude (desardura, portaera-arazoak, eskola-arazoak, eskasia arinak, nahaste psikiko eta arrisku-egoerak), eta hauek prebentzio eta asistentziako jarduerak eskatzen dituzte epe labur eta/edo erdikora.

Geografiazko kokaerari dagokionean, txiki arazodunen erdia baino zertxobait gehiago (% 56) Vitoria-Gasteizen dago, eta gainerako %43a gainerako arabar koadriletan aurkitzen da, nahiz eta populazio-dentsitate desberdinak hiriburuaren eta probintziaren gainerakoaren artean emaitzatat ematen duen azken zona honen nagusitasun askoz era nabarmenagoa (107 milako), hiriburuan (43 milako) den bitartean, larritasun handieneko arazoek pisu handiagoa dute Gasteizen bizi diren haurrengan... Adin txiki-koengan detektatu diren arazoaren tamainari dagokionean hiru zona berezi aitezke. Lehen haur-arazotan prebalentzi tasa handiko auzategiz eta koadrilaz osaturik dago (batezbestekoaz gainetikoez); Zuia, Kanpezu, Abetxuko, Ariznabarra eta Alderdi Zaharrak osaturik dago. Bigarren zona, aurrekoaren antzeko prebalentziatz, Añanako koadrila hartzen du, Gasteizko udaierriko baserriguneak eta Judizmendiko auzategia. Hirugarren zona, batezbestekoa baino prebalentzia txikiagoa duena, Arabako Errioxako koadrilak osatzen du eta, Gasteizen, Batan, Hedagunea, Txagorritxu, el Pilar, Zaramaga eta Arana auzategiek. Probintzia orokorki harturik Aialako koadrilari buruzko datuak gailentzen dirá, zeinean-tik 14ra bitarteko haur arabarren %14 taldekatzen direlarik, aurkitzen bait dirá detektaturiko haur arazodunen %31, milako 136ko prebalentzi tasarekin.

Detektaturiko arazo motei dagokienez berezian aztertu dirá adin txiki-koaren eta eta beronen familiaren arazoak, azkenean bi arazo moten baterako analisiarekin amaitzeko, bi problematiken artean dagoen harreman eta kidedasun-maila ezarriz.

Haurrengan detektaturiko arazo guztien artean, % 15 larritasun handieneko marjinazio-egoerazkoak dirá: abandonua, tratutxarra, gosea. Erakundeek zainduriko kolektiboan guztiaren %21 hartzen dute, eta haur hauen % 14a abandonuz eta tratu

txarraz erasana da eta % 6a malnutrizioaz. Eskari potentzialaren kasuan, arazo hauek guztiak detektatuaren % 13,5 hartzen dute, abandonuzko egoerak % 1 direlarik, tratu txarrezkoak % 9 eta gosezkoak % 1 2, bigarren kolektibo hau eratzten duen haurren artean.

Hain larriak ez diren problematiken eremuan (adin txikiko arazodunen % 85) haurren eerdiek desadurara arazoak dituzte (gabezia afektiboak, adin txikikoaren arbuioa, adinari ez dagozkion ekintzak buruaf beharra); lautik batek eskola-arazoak ditu (arbuioa, eskola-atzerapena, absentismoa eta/edo deseskolakuntza); bostetik bat arrisku-egoera aurkitzen da; seiren batek portaera-arazoak ditu, proportzio berak ditu eskasiak edo nahaste psikiko edo fisikoak ere. Kasu batzutan adi txikiko berak problematika bat baino gehiago izaten ditu bere gain, horregatik berauen desglosearen batuketak % 100 baino zifra handiagoa emango luke.

Detektatu diren 1.872 familia arazodunei dagokienez garrantzizkoa da kontutan izatea familia izanik lehen mailako agente sozializatzailea, bere marjinaltasuna erasten diola haurrari zuzenean, haurraren desmoldaeran eta marjinalizazioan eragina duelarik. Gehienbat agertzen den arazoa (% 31,3 familia arazodun) "famili aurrekontuaren administrazio txarrarena" da; egoera hautan ezaguera faltaz areago izaten da baliabide faltaz baino familiaren, eta ondorioz, haurraren premiak ez asetzea. Familien % 29ak jasaten dituzte gurasoetakoren baten edo bien ausentziaz sortutako egoerak. Familien % 28an gertatzen dirá gauzezako egoerak-aitarena edo amarena-gaisotasun fisiko, metal edo eskasia mentalez. Garrantziaren arabera hurrengo arazoa drogen edo alkoholaren kontsumo gehiegizkoa da eta familien %21ean du eragina, ondorioz datoren gatazka familiarra % 19 familiatan ematen delarik. Talde honetan atzemandako beste arazo batzuek bikotearen arteko tratu txarrik dirá (58), amaren prostituzioa (% 5), ijito-etniaren arazo bereziak (% 6) eta delinkuentzia (% 3). Garrantzi handiagokoak dirá gabezia ekonomikoekin zerikusia duten arazoak: 1.872 familia hauen % 13k mixeriako egoerak jasaten dituzte eta %41 bat pobretzat har daiteke.

Haurren eta berauen familien demografi profilarri dagokionean, honako ezaugarri hauek aurkitzen dirá:

— Adina goraka doan neurrian, gehituz doaz arazozko egoerak ere: detektaturiko hiru haurretatik bi 8 urtez gorakoak dirá.

-Erasate-maila altuagoa dago mutikoen artean neskatuen artean baino: (adin txikiko arazodunen % 58 sexuz maskulinoak dirá, eta nahiz eta arabar haurren artean %51 bakarrik izan sexu horretakoak.

-Jatorriz haur gehienak arabarrak dirá: hamarretik bederatzi lurralde honetan jaiotakoak dirá, nahiz eta Araban bizi diren adin txikiko egitura orokorrean, laurden bat kanpoan jaiotakoak izan.

-Gaur eguneko egoitzari dagokionez, familiaren bizilekuaz kanpo jaiotakoak % 8,5 dirá (% 4,7 erresidentzializatua eta % 3,7 gurasoen aparteko beste bizileku batean bizi izanik).

-Guraso bakarreko familien inzidentzia handia ageri da (aita edo ama falta direnekoak), izan ere detektaturiko lau familietatik bat alargunez, banatuz, dibortziaz eta/edo ama ezkongabez osatu bait da.

-Familiak beren ugaritasunaz nabarmentzen dirá, % 76an lau kideak gaintzen dituztelarik, nahiz eta arabarren multzo osoan batez beste familia bakoitzean 3,7 kide izan.

-Nagusiko guraso etorkinak: Lautik hiru ez dirá jatorriz arabarrak.

-Atipikotasuna gurasoen ekintza-motan, izan ere hiru gizonetarik bik bakarrik egiten bait du lan finkoren bat.

Dauden haüabideak

Arabako zerbitzu sozialen sarea, haurrentzako egitarau eta zerbitzuei dagokienez, Gizarte Ongunderako Foru Erakundeak (Arabako Foru Aldundia), Vitoria-Gasteizko eta Laudioko Gizarte-Ongundezko Udale Erakundeak, Caritas, Etorkizun Berria, Egunon Menditxola Elkartea eta Berrerosel Txit Santuaren Ahizpa Oblaten Kongregazioa. Erakunde hauek prestazio eta zerbitzu-aukera zabala eskainzen dute eta funtsean honako hauek dirá:

—334 plaza egoitza mota desberdinetan, 276 sektore publikoak eskainiak eta 58 sektore pribatuak, zeinetarik 195 harturik dauden.

—Famili harrera zerbitzua bere bi sailetan: Ordezko Familia Egitarauan eta Laguntza-Familia Egitarauan.

- Adopzio-Egitaraua.
- Etixerako Laguntza Zerbitzua.
- Famili Terapia Egitaraua.
- Haurtzaroa eta Familiarentzako Prestazio Ekonomikozko Egitarauak.

Gomendaturiko neurriak

Haurtzaroarentzako gizarte-politika batek izan behar dituen alderdi nagusitzat honako hauek proposatzen dirá:

- Haur arazoduna eta beronen familia batera tratatzea, ahalik eta gehienez adin txikikoa erresidentzializazioa eragotziz.
 - Adin txikikoa inguratzen duen hurbileko giroaren gain eragina izango duten ekin-tza prebentiboak garatzea arazorik ager ez dadin edota, gutxienez, daudenak areagotu ez daitezen.
- Politika honen zerbitzutan honako helburu hauek ezartzen dirá:
- Familia eta haurtzaroaren eremuan zerkusia duten zerbitzuen sare publikoen arteko koordinaketa hobetu (Hezkuntza, Osasuna, Gizarte-zerbitzuak, Gaztaroa, eta abra...).
 - Erasandako populazioari gutxienezko errenta-maila bat segurtatu bere premiak duintasunez ase ditzan.
 - Eskari potentzialaren ezaguera sakondu estudio osagarri baten bitartez adin txikiko hauen familiak erakundeetara laguntza eske ez joatearen kausak ezagutzeko.
 - Prebentzio-neurri bereziak garatu Administrazio Publikoetako beste eremu batzuerkiko lankidetzan.
 - Egoera arazodun hauekiko sentikortasuna landu bai populazio orokorraren aldetik eta bai beraietan parte har dezaketen profesionalen eta Administraio-eremuen aldetik.
 - Ikerketa eta esperimentaketa landu esku hartzeko era berriei dagokienez eta batez ere adin txikikoaren erresidentzializazioaren aurrean neurri altematiboak sortu.
 - Egoera hauetaz zuzenean arduratzen den pertsonalaren formazioa bultzatu.

- Gaur egunean haurtzaroa juridikoki babes-teko dagoen sistemaren eraberrikuntza sakon bat proposatu eta bultzatu.

Tratu txarren arazoa.

Haurrak nozitzen duen marjinaltasunezko egoera larrienetako bat, eta normalean eta berean larriak diren eta lehentasunezko erantzun bat eskatzen duten beste arazo batzurekin kidegurik agertzen dena, ahal den neurrian estudioaren emaitza orokorretatik gai honi buruz dauden alderdik nabarmen-garrienak oteratzen saiatu gara ahal den neurrian, estudioaren ustiapen gehiagarrizko baten bidez, haurrek hartutako tratu txarrak berezian analizatu.

Lehen esan dugunez, estudio honetan erabili izan den metodologiari dagokionean, bi eratako analisi elkarrosagarritan oinarritu gara: alde batetik haurtzaroari eta familiari zuzenduriko zerbitzuak gestionatzen dituzten edo programak dituzten erakunde publiko eta pribatu desberdinetan jaso den eskaria aztertu da. Beste alde batetik objektiboki dauden premiak aztertu dirá, baina guk dakigula ez eskatzaile eta ez hartzaile gisa zerbitzuen sare instituzionalarekin harremanetan sartu ez direnen kasuak kontutan izanez. Bigarren kasu honetan, hezkuntza-sare publikoko zentruen multzoan, eskolaurte eta O.H.O.tik hartutako laginak erabili dirá informazio-iturri gisa. Bi analisi mota hauek elkartzea baliokotzat jotzen da gaur egun haurtzaroan dauden premien egoeraren diagnostiko bat lortzeko, izan ere ezaguera hau nahitaezkoa bait da sektore honen planifikazio sozialerako eta dauden premiak eta eskaintzen den laguntza ebaluatu ahal izateko.

Gogoeta kuantitatibotan sartu aurretik aipaturiko metodologiaren bitartez lorturiko datuak gaiarekiko lehen hurbilpen gisakotzat hartu behar direla zehaztu behar da lehendabizi, izan ere ez bait dago antzeko beste estudioarik kontrastatu ahal izateko eta ahal izanez gero, emaitzak balioztatu ahal izateko, are gehiago tratu txarrena bezalako gai batean, zeinean "salaketaren" ideiak atzera eragin bait die seguraski solaskideei adin txikiko bat arazo honen subjektutzat definitzeko orduan.

Aztertu r i ko kolektiboaren definizioa

Tratu txar fisikoak nozitzen dituzten haurren kolektiboa 430 kideakoa da, eta honek esan nahi du 1 5 urtez beherako mila hurreko zazpi egoera sozio-familiar anomalotan aurkitzen direla. Berauetarik % 31 k-

1 33 haur- eratzten dute instituzionalki detektaturiko eskari efektiboa, edo berdin dena, Arabako Gizarte-Zerbitzuen sareak tratu txar fisikoa nozitzen duten hiru haurretarik bakarrenaren berri dauka soilik, bai erresidentzializaioaren bitartez haurrarekin harreman zuzenean sartu delako, edo bai zeharka famili egitarauen bitartez, marjinazio horri eman zaizkion erantzunak kontutan hartu gabe. Gainerako %61ak-293 haurrek-ardura behar duen kolektibo potentziala osatzen du, hau da, dauden baina erantzunik hartzen ez duten tratu txarreko arazoak.

Haur hauen demografi profilari dago-kionean, bostetik laurk 8 eta 14 urte bitartekoak dirá adinez, Arabako haurren % 50 bakarrik aurkitzen deneko adin kohortea delarik. Hemendik sortzen diren prebalentzi tasen analisiak erakusten du adina goraka doan neurrian haurren tratu txarreko egoerak ere ugalduz doazela, desberdintasun kuantitatiboak nabarmentzen direlarik haurtzarourareari dagozkion tasen (la ez da hone-lako arazorik detektatu 4 urtez beherakoen artean), 5 eta 9 urte bitartean dauden haurtzaroko tasen —% 8ko prebalentzia-eta adoleszentziaurreko tasen artean (% 11). Hala ere, gertaera honen azalpena neurri batean alderdi metodologikoetatik etor daiteke, izan ere haurra piskanaka familiatik bere eskuko egiteak 4 urterekin hasita —eskolakuntzaren hasieratik askoz nabarmenagoa bihurtzen da bere eskuko egite hau— gaizki zainduriko haurren definizioa askoz errazago bihurtzen bait du kanpokaldetik.

Sexu maskulinoa askoz gehiago ordezkaturik dagoela estatistikan lkusten da, tratu txar fisikoa nozitzen dutenen % 78 mutikoak direlarik. Zentzu honetan, mutikoen artean dagoen prebalentzi tasa nesken taldean dagoena baino hiru aldiz handiagoa da: % 10,4 eta % 3,1 hurrenez-hurren. Haur hauen sexua eta adina konbinatzean sortzen den egiturak prebalentzi tasen piskanakako hazkunde bat gertatzen déla erakusten du bi sexuentzat adina haziz doan neurrian, baina desberdintasun nabarmenak agen dirá beronen funtzioan, zeren eta haurtzaroak dituen aldi desberdinetan bariazio garrantzikoagoak detektatzen bait dirá mutilei dagozkien tasetan eta neskei dagozkienetan hazkundera geldoagoa da beraien prebalentzi tasak berdintzen direlarik goiko adin-kohortetan.

Tratu txarrak nozitzen dituzten adin txikikoen erdiak baino zerbait gehiago Gasteizko udalerrian bizi dirá eta gainerako % 40 Arabako beste koadriletan bizi dirá. Guztiarekin ere, prebalentzi tasen analisiak adiztera ematen du azken eremu honetan ara-

zoetarako joera handiago bat dagoela, izan ere % 11,5 haur gaizki tratatu detektatzen bait dirá, hiriburuan % 5,6 dauden bitartean. Berriro adierazi behar dugu neurriren batean izan lezakeela eraginik zifra hauetan erabili den metodologiak berak, zeren eta eskola bidez datuak eskuratzeak jaso egiten bait ditu hiriguneei ez dagozkien tasak, zeinean arazo sozio-familiarrak erraz eza-gutzen dituzten irakasleek. Zentzu honetan, Zuiako koadrila da arazotsuena, zeren eta 15 urtez azpiko Arabako haurren %1,5 bakarrik hartzen duelarik, Arabako osoko prebalentzi tasarik handiena bait dauka —% 47—, bertan daudelarik estudio honetan detektatu diren tratutxartu guztizkoaren % 10. Era berean Añanako (% 16) eta Aialako (% 11) koadrilek ere gainditu egiten dute batezbesteko prebalentzi tasa, gainerako zonak Arabak orokorki ematen duen % 7aren azpitik daudelarik.

Tratu txarrekin kideguriko arazoak

Estudiotik ateratzen diren emaitzen arabera, bi eratako arazoez hitzegin daiteke: arazo larriez (abandonua, tratu txarrak eta gosea) eta hain larriak ez direnez (desardura, portaera, eskasia eta nahaste psikikoak eta arrisku-egoerak).

Arazo hauek tratu txarrekin kidegur deneko era, honako koadroan geratzen da isladaturik:

Tratu txarrekin kideguriko arazoak	Abs.	%
Abandonua	19	4,4
Tratu txarrak	430	100,0
Gosea, txukuntasunik eza	48	11,2
Osasun-arazoak	11	2,5
Portaera arazoak	88	20,4
Portaera deliktiboa	13	2,9
Drogak, alkohola	10	2,3
Arreta txarra	154	35,7
Eskasia mentala	23	5,3
Eskaletza	2	0,5
Famili arbuioa	13	3,0
Eskola arbuioa	29	6,7
Deseskolakuntza	3	0,7
Eskola-absentismoa	22	5,1
Eskola-porrota, atzerapena	39	9,1
Nahaste psikikoak	37	8,5
Sexu-abusuak	2	0,5
Gabezia afektiboak	56	13,1
Adinari ez dagozkion ekintzak	31	7,2
Arrisku-egoera	6	1,4
GUZTIRA KASUAK	430	100,0

Tratu txarrekin gehienbat kidetzen den arazoa "desardura" da, gure solaskideek espezifikoki definituriko desardurazko egoerak biltzen dituen kontzeptua, bere baitan "bere adinari ez dagozkion ekintzak", "bere familiak arbuaturiko haurrak", "gabezia afektiboak", higiena, nutrizioa... bezalako gaietan eskas zainduriko haurrak" bezalako kontzeptuak sartzen direlarik. Tratu txarrak hartzen dituzten hamar haurretarik seik desardura mota hau ere nozitzen dute.

Portaera aurredeliktiboak eta gai toxikoen kontsumoa beren baitan dituzten portaera-arazoek lau haurretatik bat erasaten dute, hau delarik haur hauek erasaten dituen bigarren problematika prebalentzi ordenuan.

Bost haurretatik bik ditu eskola-arazoak, talde honetan deseskolakuntza, atzerapen/porrot eskolarra, eskolaren arbuioa eta eskola-absentismoa sartzen direlarik.

Sei haurretarik batek osasun fisikoak edo mentalezko arazoak ditu (eskasia mentala eta nahaste psikikoak) eta % 10ek gose du eta txukuntasunik eza jaztean, gorputz higiean... Azkenik, haurren % 4,4 erdibandonuzko egoeran aurkitzen da eta gainerako % 2a arrisku-egoeratan aurkitzen da.


Famili taldea

Famili unitateen berezitasunei dagokienean, zeinetakoak bait dirá aipaturiko haurrak, honako hauek eskaintzen ditugu:

—Gehienak familia nuklear usadiozkoetakoak dirá, zeren eta haurren % 11 bakarrik bait dirá familia monoparentaletakoak, guraso bakarraren baitan egituratuak eta aita/ama banandu/dibortziaz eratuak (21 kasu), aita/ama alargunduz (13 kasu), ama ezkongabez (4 kasu) eta aita resondegiratuz (2 kasu).



—Beren ugaritasunez ezaugarritzen diren familiak dirá, izan ere hiru haurretarik bat zazpi senide eta gehiago dituzten familiatakoak bait dirá, eta seitik bakarra da famili mugatuetakoa (3 kide edo gutxiagokoa). Gainerako 204 haurrak, 4 eta 6 senide bitarteko familiatakoak dirá.

—Haurren % 4 bakarrik dirá egoera ekonomiko nór mala dutenak, eta honetatik ateratzen da intentsitate desberdineko larritasun ekonomikoko egoeratan bizi direla gainerakoak. Honela, % 53 pobreziazko egoeratan bizi da, haurren % 13 mixe-riazko muga-egoeratan aurkitzen delarik.



TRATU TXARRA NOZITZEN DUTEN HAUREN
BANAKETA FAMILI ARAZOEN ARABERA

Haur Kopuruak



Mutikoak Neskatoak

Adierazgarria da zentzu honetan, lau haurretarik baten familiek diru-sarbide nagusizat izaera erregular edo irregularreko erakunde-prestazio ekonomikoak izatea.

Tratu txarra nozitzen duten adin txiki-koen gurasoen berezitasun sozio-demografikoak aipatzekotan, honako hauek eman ditzakegu ezaugarri nagusizat:

—Nagusiki etorkinak dirá, bai aiaren eta bai amaren mailan ikusten delarik, 7 gurasoetatik bat bakarrik déla arabarra, eta arabarren multzo osoan populazio egoiliarren % 55 bertan jaioa déla.

—Hiru gurasotatik bik bakarrik burutzne duela lan mota finko edo egonkorrik, % 9 langile behinbehinekoak direlarik. Gainerakoa langabetuen, ezinzuen, jubilatuen eta bazter-langileen eta/edo ez-legalen artean banatzen direlarik. Amen kasuan, banaketa aldatu egiten da, % 5 bakarrik langile finko gisa agertzen direlarik eta % 6 behinbehineko gisa. Bere garrantziarengatik azpimarratzekoa da emakumezkoen % 18k etxe-zerbitzuen lan egiten duela eta % 5 ekintza ez-legaletan aritzen déla. Azkenik, hiru amatatik bi aritzen dirá usadioz etxeokak izan diren zereginetan.

Familia eta adin txikikoaren arazoa

Azken parte honetan ahaleginak egingo ditugu famili taldeak dituen arazoaren eta haurren tratu txarreko egoeren artean sortzen den harremana aztertzen.

Zentzu honetan, droga eta/edo alkohol-kontsumoa aitarengan/amarengan da gehien errepikatzen den arazoa, haurren % 34a erasaten duelarik, hau da, tratu txarra nozitzen duen hiru haurretarik bat toxikomanoren bat dagoen familiakoa da, eta gehienetan aita izaten da kontsumitzailea. Proportzio bera agertzen da bikotearen baitako tratu txarraren arazoan zeren eta agerian geratzen bait da tratu txarra nozitzen duen hiru haurretarik bat gurasoen artean tratu txarra egoten den familietan integraturik bait dago.

Famili gataska larriko egoerak ehunen bat haurren familiek erasaten ditu, eta honen ondorioz tratu txarra hartzen duten lan haurretarik bat ezegonkortasuna eta famili taideta desegiterra jotzen duten disfuntzioak izateaz ezaugarritzen den famili girokoa da.

"Famili aurrekontuaren administrazio txarra"ren arazoa, baliabide gabezia baino

ezauguera faltaz areago haurren eta familiarren premiak behar bezala asetzen ez direneko kontzeptuak estudioko kolektiboa osatzen duten bost haurretariko batekin du zerikusia.

Gaisotasun fisiko, mentalez edo eskasia mentalez gauzeztandurik ezkontideren bat egoteaz ezaugarrituriko egoerak haurren % 8 bat erasaten dute, egoera hauek askotarikoak dirá eta aita edo ama-egiteko ohizkoak betetzeko ezintasuna sortzen dute. Gaisotasun fisiko kasuetan aita izaten da erasana gehienbat eta eskasia mentala amarena.

Zentzu honetan, "haurrak zaintzeko gaitasunik eza" bezala definituriko arazoa ildo beretik joango litzateke: desgaitasun fisikoak eta/edo psikikoak detektatzen direneko familiak edo bestela beste era bateko faktoreak haurrak zaintzeko denbora materialik ez dagoenekoak (lan-ordutegiak haurra etxean egoten deneko denboraekin bat etortzen dirá alargun, ama ezkongabe, banatuen... kasuetan) eta hau detektaturiko hamar haurretarik baten kasua izaten da arazo hau.

Aitaren edo amaren ausentziarekin zerikusia duten arazoak erakusten dute familiarren barne-egituraren atipikotasuna haurren tratu txarrekin kidetzen den beste ezaugarrietako bat déla. Honela, 18 haur aurkitzen dirá gurasoetakoren baten hutsunearekin aurkitzen direnak, 11ak ez dute aita/amarik, 17 guraso banatuen/dibortziatuen seme-alabak dirá eta 5 ama ezkongabeen seme-alabak dirá.

Haur hauen % 3ren amak prostituziarekin zerikusia duten ekintzatan aritzen direla kontutan hartuz gero eta hau lotzen bada guraso bat edo biak ekintza deliktibotan aritzen direneko kasuekin (haurren %4), aterra genezake portaera desbideratuak nolabait kideturik daudela adin txikikoari ematen zaion tratu txarrekin.

Azkenik, detektaturiko arazoaren gainerakoak, haur hauen ia erdiak erasaten dituen "beste" arazoaren multzoak, sortzen duten marjinalitateaz ezaugarritzen direneko egoera-desberdintasun handi batekin du zerikusia: bertan sartzen dirá eskaletza, bizilekuen desegokitasuna, giza samaldaketa, gabezia afektiboak familian eta familia batzuren gizarte-arbuioa (gutxiengo etnikoak norma-lean).

Elena Martín Zurimendi